

## FUNTSEZKO JARDUERAK

Funtsezko jarduera bat higiena izango litzakete. Persona asko izerdi handia botatzen dutelako egunero beraz, enpresa bat enkargatu egingo dugu egunero gimnasioa garbitzeko. Egunero bi alditan garbituko dute gimnasioa, hura ixterakoan eta ireki baino lehen. Hau oso inportantea da bezeroen ongizaterako, makinak eta lokala garbi eta txukun egotea, jakina da lokala zikina badago hori ez da erakargarria izango ezta higienikoa eta bezeroak joango dira gure gimnasiotik, beraz hori ez gertatzeko funtsezko jarduera da.



Beste funtsezko jarduera bat, baliabideetan esan dugun bezala, gimnasio monitoreen ezagutzak eta jarrera da. Oso adeitsuak eta beharreko formakuntzak izango dituzte, dudak dituzten pertsonen argitzeko. Negozioan lan egiten duten pertsona guztiek jakin behar dute erabiltzaileek izan dezaketen edozein zalantza erantzuten baita makina bakoitzaren erabilpena nola izan behar den eta zertarako den bezeroei laguntzeko. Horretarako, 15 monitore lan egingo dute gure gimnasioan. Bertako batzuk, entrenadore pertsonalak izango dira.



Lokaleko aireztapena ere funtsezkoa izango da bezeroak eroso senti daitezen; izan ere, nahiz eta higiene handia izan, haizagailurik ez badugu, usain txarrak lokalaren barruan jarraituko dute eta horrek bezeroak gogaituko ditu. Horrela, haizagailuakairea berritu eta giroa hobetuko dute giro hobeko bat lortuz.

